



EBAZPENA, 2024ko abenduaren 11koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2024-2027 denboraldirako ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2024ko maiatzaren 21eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 31. artikulua araber, laguntza berriak, Ikerketa Orokorrean, ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, ikerketa zuzendariaren ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta ikerketa zuzendariak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2024-2027 denboraldirako.

Kontratu horiek 3 urterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren ordezkoko eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean agertzen diren kanpoan utzitako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, kanpoan uzteko arrazoiak zehaztuz.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Zientzia, unibertsitate eta berrikuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea